



ADMINISTRAZIO BALDINTZEN AGIRIA

UDAL ARGITERIA PUBLIKOAREN ENERGIA ZERBITZUAK ETA MANTENTZE LANAK BERME OSOAREKIN HORNIDURA ETA ZERBITZU KONTRATU MISTO BATEN BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA

A. XEDAPEN OROKORRAK

1. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honetan azaltzen den kontratuak administrazio-izaera du eta honako arau-testu hauei jarraituko die:

- a) Administrazio-baldintza partikularren plegu honetan (ABPP) eta hari lotutako baldintza tekniko partikularren pleguan (BTPP) jasotako baldintzak.
- b) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartua (SPKLTB).
- c) Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea hein batean garatzen duena (817/2009 ED).
- d) Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua (APKLEO).
- e) 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoen prozedura erkidearen legea.
- f) Abenduaren 13ko 15/1999 Legea, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onartu zuena.
- g) Zuzenbide pribatuko arauak aplikagarri izango dira zuzenbide osagarri gisa, kontratuaren interpretazioari, efektuei, betetzeari eta amaierari buruzko zalantzak sortu eta aipatu berri ditugun xedapenen bidez ezin argitu badaitezke.

Kontratu hau hornidura- eta zerbitzu-kontratu mistoa da, baina esleitzerakoan hornidura-kontratuei buruzko zehaztapenak hartuko dira kontuan, SPKLTBren 12. artikuluekin bat, horniduraren atalak garrantzi gehiago baitu ikuspuntu ekonomikoaren arabera. Haren efektuei, betetzeari eta amaierari dagokienez, ABPPn, BTPPn eta beste kontratu-dokumentuetan xedatutakoari jarraituko zaio.



Honako hauek dira kontratuaren dokumentuak:

- a) ABPP eta haren eranskinak.
- b) BTPP eta haren eranskinak.
- c) Kontratua formalizatzeko agiria.
- d) Esleipendunak aurkeztutako eskaintza.

Dokumentu hauek kontratua formalizatzeko unean sinatuko dira, adostasunaren erakusgarri.

Batean eta bestean esandakoen artean kontraesanik badago, baldintza-agiri honetan dokumentuak aipatzeko erabili den ordena izango da lehentasun-hurrenkera, dokumentuak interpretatzean; hau da, lehenago aipatzen diren dokumentuek lehentasuna dute atzerago aipatzen direnekiko.

Kontratuan, ABPPn, BTPPn, haren eranskinetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan zer jartzen duen ez jakiteak ez du salbuesten hura betetzeko eginbeharretik.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea **ZESTOAKO ARGITERIA PUBLIKOAREN SAREA OSATZEN DUTEN INSTALAZIOEN ETA EKIPOEN ENERGIA-ZERBITZUAK MANTENTZE-LANEKIN ETA BERME OSOAREKIN** kontratatzea da, Baldintza Teknikoen Agirian xedatzen den bezala.

Kontratugai diren zerbitzuek honako prestazio hauek dituzte xede:

P1 prestazioa - Energia-kudeaketa: Zestoako argiteria publikoaren sarea osatzen duten instalazioen energia-kudeaketa eta kontserbazioa; Zestoako kanpoko argiteria publikoaren sare guztirako elektrizitatearen hornidura energetikoaren kudeaketa; horniduraren kalitate, kantitate, erabileraren eta bermeen kontrola. Energia erosteko kontratuen titulartasuna esleipendunarena izango da, eta hark formalizatu beharko ditu energia elektrikoa merkaturatzen edo banatzen duten enprekin. Kontratu honen eraginpeko instalazioen energia-kontsumoak prestazio honen barruan sartzen dira.

P2 prestazioa - Mantentze-lanak: Zestoako kanpoko argiteria publikoaren sarea osatzen duten instalazioak eta haien osagai guztiak, eguberrietako argiak barne, behar bezala funtzionatuko dutela eta garbi egongo direla bermatzeko behar den mantentze-lan ohikoa, programatua eta prebentziozkoa, bai eta instalazioen eta osagai guztien errendimenduak



denboran iraun dezan lortzea ere, balio normalean eta mantentze-zerbitzu egoki batekin. Prestazio horrek derrigorrez izan behar duen gutxienezko jarduera jasotzen da BTPPn.

P3 prestazioa - Berme osoa: Prestazio horren barruan dago, era berean, instalazioetan hondatzen diren elementu guztiak konpontzeko ordezteak, Baldintza Teknikoen Agiri honetan, berme osoaren modalitatean arautzen denari jarraituz.

P4 prestazioa - Energia kontsumitzen duten instalazioak hobetzeko eta berritzeko obrak:

Prestazio horren barnean hartuko dira, derrigorrezko gutxieneko gisa, energia kontsumitzen duten instalazioak hobetzeko eta berritzeko egin beharreko inbertsio guztiak (Baldintza Teknikoen Agiriari erantsitako auditoretzaren dokumentuan bildutako zehaztapenetan daude jasota), energia erreaktiboa ezabatzeko eta/edo konpentsatzeko instalatu beharreko aparatuen hornikuntza, instalazioa, abiaraztea eta behin-behineko harrera barnean hartuta. Zerrendatutako prestazioez aparte, kontratu honen bitartez efizientzia energetikoaren hobekuntza sustatu nahi da. Horretarako energia aurrezteak, energia efizientziaz kontsumitzea eta energia berriztagarriak erabiltzea sustatzen duten ekipoak eta instalazioak jarriko dira..

Esleipendunak instalazio horiek aztertu, proposatu, egikaritu eta finantzatu egingo ditu, energia berriztagarriaren aurrezkien edo salmentaren bitartez, betiere kontratuaren indarraldiak dirauen bitartean, eta ez dute inolako eragin ekonomikorik izango kontratu honen aurrekontuan.

Argiteria publikoarekin lotutako energia-aurrezkoa eta ekonomikoa Zestoako Udalaren premiak bete nahi dira kontratu honen bidez. Kontratu honen xede diren prestazioak egokiak dira premia horiek betetzeko, bidea ematen baitute efizientzia energetikoa hobetzeko modu egiaztagarri eta neurgarri. Horretaz gain oinarritzko energia aurrezpena ekarri beharko du, argiteria publikoaren zerbitzua urritu gabe.

Badago energia-auditoria bat, 2016koa, eta horretan jasotzen da nola zeuden instalazioak orduan, zer alda daitekeen kale-plazetako argiterian, zenbat kostatuko litzatekeen auditorian proposatutako obrak egitea eta zein liratekeen amortizazioaren epeak. Auditoria hori Agiri Teknikoaren C eranskinari itsatsita dago, informazio gisa baino ez.

Lizitatzailleak, beraz, ez daude behartuta auditorian jasotako irtenbidea beren proposamenean kontuan hartzera. Bakoitzak proposatu behar du haren ustez zein izango litzatekeen irtenbiderik onena efizientzia energetikorik handiena lortzeko.



3. AURREKONTUA

Kontratuaren gehieneko aurrekontua MILIOI BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA (1.290.000 €) da, BEZ kanpo, eta, HAMAR urtekotan zatituta, urteko gehieneko prezioa EHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA (129.000 €) izango litzateke, BEZ kanpo. Eskaintzek ezin dute gainditu gehieneko aurrekontu hori.

Lizitazioaren urteko gehieneko prezioaren banakapena honela ezartzen da energiaren kudeaketaren prestaziorako (P1), mantentze-zerbitzurako (P2) eta berme osoaren prestaziorako (P3):

Prestazioa	Urteko zenbatekoa BEZ gabe (€)
P1	86.000,00
P2	23.000,00
P3	20.000,00
GUZTIRA	129.000,00

Esleipendunak eskaintzan zehaztu beharko du zer urteko gehieneko prezio eskaintzen duen P1, P2 eta P3 prestazioetarako eta jakin beharko du P4 prestazioaren esparruan egin beharreko inbertsioak lizitatzailleak berak egin eta berreskuratu beharko dituela kontratuaren bizian lortzen dituen aurrezkien bidez.

Honela, bada, N urterako urteko gehieneko prezioa hau izango da:

$$UGP_n = P1_n + P2_n + P3_n$$

Azalpena:

$P1_n$ = P1 prestazioaren prezioa (energia-kudeaketa) n urterako

$P2_n$ = P2 prestazioaren prezioa (mantentze-lanak) n urterako

$P3_n$ = P3 prestazioaren prezioa (berme osoa) n urterako

Lizitatzailleak aurkeztutako eskaintzen barruan kontratuaren prezioa eta kontraturiko prestazioak behar bezala betetzeko esleipendunak egin beharreko gastu guztiak daudela ulertuko da; hau da, gastu orokorrak, finantzakoak, etekinak, aseguruak, haren langileen gastuak, egiaztapen eta entseguetarako dagozkienak, eskubideak, tasak eta zergak, BEZ izan ezik; beraz, ezin dira aparteko diru-partida moduan jaso. Hala ere, BEZari dagokion zenbatekoa aparteko diru-partida gisa agertuko da.



4. KREDITUA BADAGOELA JASOTZEA

Kontratu honetatik eratorritako bete behar ekonomikoak, dagokion urteko aurrekontuan jasotako aurrekontu partidarekin beteko dira, eta kontratuaren exekuzioko epean etorkizuneko aurrekontuetakoekin ere bai.

Kontratua, exekuzioko ekitaldiaren aurreko ekitaldian gauzatzen bada, esleipena, dagokion ekitaldiko obligazioak finantzatzeko kreditu nahiko eta egokia izatearen baliogabetze baldintzara lotua geldituko da.

5. KONTRATUAREN IRAUNALDIA

Kontratazio honen iraunaldia 10 urtekoa izango da, formalizatzen den egunetik aurrera kontaturik.

6. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratazio-organoaren eskumenak Udalbatzari dagozkio, SPKLTBaren bigarren xedapen gehigarriaren 2. zenbakian xedatutakoari jarraituz. Beraz, organo horrena izango da espedientea onartzeko eta kontratua esleitzeko eskumena.

7. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratu hau esleituko duen Udalbatzari laguntzeko Kontratazio mahai bat izango da honek izango du eskaintzak baloratzeko eskumena. Honela osatuko da:

- Mahaiaren presidentea: GORKA UNANUE ZABALA (Hirigintza batzordeko presidentea)
- Mahaikideak:
 - JOSE FRANCISCO MENDIZABAL IRIGOIEN (Alkatea)
 - MIKEL ARREGI URRUTIA (Zinegotzia)
 - TOMAS ODRIOZOLA ARISTI (Zinegotzia)
 - IRATI PEÑAGARIKANO LARRAÑAGA (Udaleko koordinatzailea)
 - NORA PALMITANO ROSSI (Euskara Teknikaria)

- Idazkaria. ANDER CESTONA UNANUE (Udaleko idazkaria)



Kontratazio Mahaiak kontratuaren xedearekin lotutako txosten teknikoak eska ditzake, beharrezkoa iruditzen bazaio, bere proposamena egin aurretik.

Kontratazio organoak kontratua esleitzeko erabakian ez badio jarraitzen Kontratazio Mahaiaren proposamenari, erabakiaren arrazoiak eman beharko ditu.

8. ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOA

Espediente hau modu arruntean tramitatuko da, eperik murriztu gabe.

Hori, ordea, ez da eragozpena izango Zestoako argiteria publikoaren sarea osatzen duten ondasunak, instalazioak, ekipoa eta osagaiak bisitatzeko, eskaintzarekin batera instalazioek orain duten egoerari buruzko txosten bat aurkeztu ahal izateko. Horretarako, lizitatzailerak harremanetan jarriko da Zestoako Udalarekin. Instalazioak bisitatu direla egiaztatzeke, bisita-egiaztatgiri bat zigilatu eta instalazioen argazki-erreportaje bat egingo da.

9. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratatzailearen profila ikusteko helbidea hau da:

<http://www.zestoa.eus>

B. LIZITAZIO BALDINTZA BEREZIAK

10. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, erregulazio harmonizatuari lotuta, esleipena proposamenik abantailatsuenari egiteko, haren balio ekonomikoari soilik begiratu gabe, SPKLTBren 157. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

11. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

SPKLTBren 103. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lizitatzailerak behin-behineko bermea eratu beharko dute, 25.000 eurokoa.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Honako kontratazio-prozedura honetara aurkeztu ahal izateko, lizitatzailerak beren gaitasun juridiko osoaren jabe izan beharko dute, bai eta jarduteko gaitasun osoarena ere: kaudimen ekonomikoa, finantzakoa eta tekniko zein profesionala dutela egiaztatu beharko dute. Horietaz



gain, ez dute izan behar SPKLTBren 60. artikuluan Administrazioarekin kontratuak egiteko xedatzen diren debeku edo bateraezintasunetako bakar bat ere.

Era berean, pertsona natural zein juridikoek zuzenean edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta parte hartu ahal izango dute prozeduran. Bigarren kasuan, horretarako emandako ahalorde baten bidez egin beharko da. Pertsona juridiko baten ordezkari gisa pertsona juridiko horren kide batek parte hartzen duenean, horretarako ahalmena duela egiaztatu beharko du dokumentu bidez. Kasu batean zein bestean, aipatu diren kontratatzeke ezintasun arrazoiak eragingo diote ordezkariari.

Enpresaburuek kontratu honi dagokion jarduera edo prestazioa egin ahal izateko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza ere izan beharko dute.

Enpresaburuek aldi baterako elkarte bat era dezakete kontratazio honetan parte hartu eta eskaintzak egiteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak 59. artikuluan esandakoaren arabera. Elkartea osatzen duten enpresaburu guztiek jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzakoa eta tekniko zein profesionala dituztela egiaztatu beharko dute; horretaz gain, agiri honetako baldintzetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute eta dokumentu pribatu batean adierazi beharko dute zer izen eta inguruabar dituzten elkarteko kide guztiek, zer partaidetza duen bakoitzak, zer pertsona edo entitatek izango duen Administrazioaren aurrean haiek guztiak ordezkatzeko ahalmena, kontratuak dirauen bitartean, bai eta aldi baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere (Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 24. artikulua). Dokumentu hori aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariak sinatu beharko dute.

13. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratuaren iragarpena Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean (DOUE) argitaratuko da, bai eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) eta Zestoako Udalaren kontratatzaile-profilean ere, SPKLTBren 142. artikuluan xedatutakoarekin bat. Argitaratze horrek zabalduko du proposamenak aurkezteko epea.

Proposamenak Zestoako udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Foru Plaza 1, goizeko 08:30etik 14:00etara, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, epea amaitzen den egunera arte,



ZESTOAKO UDALA

hau da, DOUEra iragarkia bidali eta hurrengo 52 egun naturalen barruan. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko da.

Dokumentazioa postaz bidaltzen denean, enpresaburuak igorpena posta-bulegoan zein egunetan egin duen egiaztatu behar du, bai eta eskaintza igorri duela faxez (943 148 074) edo e-postaz (idezkaritza@zestoa.eus) jakinarazi. Bi baldintza hauek bete ezean, dokumentazioa ez da onartuko, iragarkian adierazitako aurkezte-epearen eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen bada.

SPKLTBren hamabosgarren xedapen gehigarriarekin bat etorritik, Administrazio honek lizitatzailleak emandako posta elektrikoaren helbidera bidaliz helarazi diezazkieke lizitatzailleei egin beharreko komunikazio edo jakinarazpenak. Horretarako, A) gutun-azalaren 9) atalean esan beharko du zein den helbide hori.

Lizitazio honen berri Zestoako Udalaren kontratatzaile-profilean iragarriko da: <http://www.zestoa.eus>

Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzailleak agiri honen baldintzak, baldintza teknikoak eta gainerako kontratu-dokumentu guztiak inolako baldintzarik eta salbuespenik gabe onartzen dituela eta, orobat, aurkeztu dituen datu guztiak egiazkoak eta zehatzak direla. Hortaz, kontratazio honetarako eskakizun guzti-guztiak betetzen dituela aitortzen duela bere erantzukizunpean.

14. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Proposamenek **HIRU** gutun-azal itxi izango dituzte. Identifikatzeko, kanpoaldean azalduko da zer lizitaziotara aurkezteko den, zein diren enpresa lizitatzaillearen izen-deiturak edo izen soziala, telefono- eta fax-zenbakiak, eta posta elektronikoa, halakorik izanez gero: eta lizitatzaillearen edo haren ordezkariaren sinadura ere agertuko da.

Gutun-azal bakoitzaren edukia ere agertuko da zerrendatuta eta honako baldintza hauek bete beharko ditu:

14.1. "A gutun-azala" (KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA)



A.1, A.2, A.6, A.7 eta A.8 ataletan aipatzen den dokumentazioa hasieran aurkeztu beharrean, lizitatuzaileak erantzukizun-aitorpen bat egin dezake Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazteko. A.3, A.4, A.5, A.9 eta A.10 ataletan aipatzen diren dokumentuak edo datuak nahitaez aurkeztu behar dira A gutun-azalean.

Esleipen-proposamena lortzen duen lizitatuzaileak egiaztatu beharko dio kontratazio-organoari eskatzen diren dokumentuak badituela eta dokumentuak balioa dutela, kontratua esleitu aurretik. Horretarako, kontratazio-mahaiak zazpi egun naturaleko epea bat emango dio dokumentu horiek aurkezteko, eskaintzarik onena berea dela jakinarazten zaion egunetik kontatuta. Behar den dokumentazioa epe horretan aurkezten ez bada, lizitatuzailea prozeduratik kanpo geratuko da eta kontratuaren gutxi gorabeherako balioaren % 2 ordaindu beharko du zigor gisa, bai eta kalte-ordaina ere, sortutako kalte-galerek ehuneko hori gainditzen duen zenbatekoa ordaintzeko. Lizitatuzailea kanpo utzi ondoren, esleipena hurrengo eskaintzarik onena aurkeztu duenari egiteko proposatuko da.

Edonola ere, kontratazio-organoak, prozedura behar bezala egingo dela bermatzeko, esleipen-proposamena egin aurretik, edozein unetan eska diezaieke lizitatuzaileei dokumentazioa aurkezteko, kontratuaren esleipenduna izateko beharrezko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen.

A gutun-azalaren barruan honako dokumentu hauek egon behar dute (dokumentuak jatorrizkoak izan daitezke edo kopiak, baina kopiek benetakotasun-izaera izan beharko dute, indarrean dagoen legeriaren arabera):

A.1. Lizitatuzaileak jarduteko gaitasuna duela egiaztatzeke dokumentazioa

a) Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jardute-gaitasuna: eratze-eskrittura edo -dokumentua, eratze-egintza edo estatutuak (haren jardura-arauak jasotzen dituztenak), pertsona juridiko motaren arabera dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta.

b) Espainiakoak izan gabe Europar Batasuneko estatu kideren batekoak diren enpresaburuen jardute-gaitasuna: egoitza duten Estatuaren legeriaren arabera dagokien erregistroan egindako inskripzioa, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiria, Europar Batasuneko xedapenen arabera erregelamendu bidez ezarritako moduan egina.



c) Gainerako enpresaburu atzerritarrak: Espainiako Diplomazia Misio Iraunkorrek eginiko txostena, nork bere estatukoa; edo, enpresa zein lurraldetan dagoen, hango Kontsuletzeko Bulegoak egina.

A.2. Lizitzaileak kontratuak egiteko debekurik ez duela adierazteko erantzukizun-aitorpena

Enpresaburuek kontratatzeke debekurik ez dutela adierazten duen frogagiria (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikuluan aipatzen dira debekuak):

a) Lekukotza judiziala edo administrazio-egiaztagiria, kasuan kasu; eta, dokumentu hori eskudun agintaritzak eman ezin duenean, erantzukizun-aitorpen bat aurkeztu ahal izango da haren ordeztan. Aitorpen hori administrazio-agintaritzan batean, notario publiko baten aurrean edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean egina.

b) Europar Batasuneko estatu kideen enpresak direnean, eta aukera hori dagokion Estatuaren legerian jasota dagoenean, agintaritzan judizial baten aurrean emandako erantzukizun-aitorpen bat ere aurkez daiteke haren ordeztan.

A.3. Lizitzaileak kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa duela egiaztatzen duen dokumentazioa

Energia-kudeaketako zerbitzuen prestazioan eta instalazio elektrikoek mantentze-lanetan, azken hiru ekitaldietan halako gutxieneko fakturazioa izan dutela egiaztatu beharko dute enpresa lizitzaileek. Kontratu honen urteko batez besteko balioaren 1,5 izan behar du gutxienez, eta honako bideetako edozein erabiliz egiaztatuko da:

- a) Dagokien Merkataritza Erregistroan edo Erregistro Ofizialean aurkezturiko urteko kontuak. Kontuak Erregistro Ofizialetan aurkeztera behartuta ez dauden enpresaburuek, behar bezala legeztaturiko kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete ziurtapenen gisa.
- b) Negozioen bolumen osoaren adierazpena eta, hain zuzen, energia-kudeaketako zerbitzuen eta instalazio elektrikoek mantentze-lanen eremuan duten negozio-bolumenarena.

A.4. Lizitzaileak kaudimen tekniko nahikoa duela egiaztatzen duen dokumentazioa

Enpresaburuaren kaudimen tekniko edo profesionala haren baliabideak, ezagupen teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna kontuan hartuta balioetsiko da. Kaudimen hori egiaztatzeke, honako dokumentazio hau agertu beharko da, proposamena aurkezteke unean.



Eskatzailearen gaitasun teknikoa balioesteko aukera ematen duen bestelako dokumentazioa ere gehitu ahal izango zaio:

- a) Egindako mota eta izaera bereko lanak, azken bost urtetan. Zerrenda bat aurkeztuko da eta lan horien kontratuaren izena, zenbatekoak, datak eta sustatzaile publiko zein pribatuak zehaztuko dira. Kaudimena egiaztatzeko gutxieneko baldintza izango da kontratuaren exekuzio handiena izan den urtean, pilotutako urteko zenbatekoa berdina edo handiagoa izatea kontratuaren batez besteko urtekoaren gutxi gorabeherako balioa baino.

- b) Aitorpen batean azaldu behar da zein diren enpresarako zuzenean aritzen diren langileak, zein den zuzendaritza-taldea, bai eta enpresak nolako egitura eta antolaketa dituen ere. Honako hau aitortu beharko da:
Zer giza baliabide tekniko eta osagarri dituen kontratuarekin lotutako jarduerak egiteko, indarrean dagoen legeriak eskatzen duenaren arabera. Kontratistak organigraman aurreikusitako langileak prest izango ditu, agiri honetan bildutako baldintzak behar bezala betetzeko; gainera, haien ordainsariak, pizgarriak, aparteko ordainsariak, gizarte-aseguruak eta abar ordaindu beharko ditu, eta horiek guztiek bat etorri beharko dute indarreko legeriarekin eta eraginpean hartzen dituzten hitzarmen kolektiboetan ezarritakoarekin.

- c) Aitorpen batean azaldu beharko da zein diren enpresaburuak dituen instalazioak, ekipoak eta kontratuarekin lotutako jarduerak egiteko bestelako elementuak. Esleipendunak honako ekipo hauek eduki beharko ditu gutxienez:
 - Lurpeko aberien detektagailua
 - 14 metroko edo hortik gorako tokietara iristen den saski-kamioia, GPS eta komunikazio-sistemarekin.
 - Luxometro erregistratzailea.
 - Isolamendu- eta lur-neurgailua.
 - Tenaza volt-amperemetrikoak eta fase-amperemetrikoak langile bakoitzarentzat.
 - Voltmetro-amperometro erregistratzailea.
 - Tentsio-erregistratzailea.
 - Intentsitate-erregistratzailea.
 - Sareko harmonikoen analizagailua.
 - Iluminantzia-neurgailu kalibratua.
 - Kamera termografikoa.



- Laser-telemetrya.
- Plataforma jasotzailea, 10 metrotik gorako altueretarako, iristeko zailak diren tokietan lanak egitea ahalbidetzen duena.

d) Aitorpen batean azaldu beharko da zein diren ekoizpen-sistemaren kalitate-kontrolaren neurriak eta sistemak (ISO arauaren egiaztagiriak edo baliokideak).

A.5. Instalazioen berri jakiteari buruzko dokumentua

Lizitatzailleek instalazioen egoera zein den badakitela eta egoera hori beren gain hartzen dutela adierazi beharko dute dokumentu batean, eta dokumentu hori gutun-azal honetan sartu beharko dute.

Zestoako Udalak egun jakin bat ezarriko du lizitatzailleak instalazioak ikustera joan daitezzen; eskaintzak aurkezteko egunaren biharamunetik aurrerako edozein egun izango da egun hori, eta Udalaren webgunean jakinaraziko da zehazki zein izango den.

A.6. Atzerriko enpresen adierazpena

Kontratuan gertatzen diren zuzeneko nahiz zeharkako gorabeherak konpontzeko, atzerriko enpresek **aitorpen** batean adierazi beharko dute Espainiako edozein eratako Auzitegien eta Epaitegien jurisdikzioa onartzen dutela eta lizitatzailleek dagokien atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten dietela.

A.7. Erkidegotik kanpoko atzerriko enpresak

Gainera, Espainian sukurtsalen bat zabalik dutela eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute. Eta ahaldunak edo ordezkariak izendatuta izan beharko dituzte bere eragiketarako.

A.8 Ezgaitasuna duten langileen ehunekoa egiaztatze dokumentazioa

Plantilan, ezgaitasuna duten **langileen kopurua % 2tik gorakoa bada**, eta SPKLTBren laugarren xedapen gehigarriaren bigarren atalean jasotzen denari atxikitzeke, honako hau egiaztatu beharko da horretarako emandako egiaztagiri baten bidez edo dokumentazio egokiaren bidez:

- Enpresaren plantillan ezgaitasuna duten langileen kopurua % 2tik gorakoa izatea.
- Plantilan, ezgaitasuna duten langile finkoen ehunekoa zenbatekoa den.



A.9 Jakinarazpenak egiteko helbidea

Lizitatzailer guztiek helbide bat eman beharko dute jakinarazpenak egiteko, bai eta posta elektronikoko helbide bat eta telefono-zenbaki bat eta fax-zenbaki bat ere.

A. 10 Behin-behineko bermea

SPKLTBren 96. artikuluan aurreikusitako moduan eratua eta 103.3 artikuluan aurreikusitako moduan gordailutua.

14.2. "B gutun-azala" PROPOSAMEN TEKNIKOA

Formulak aplikatuz baloratu ezin diren irizpide teknikoek buruzko dokumentazioa sartuko da B gutun-azalean. Gutun-azalean sartzen diren dokumentuen zerrenda bat ere sartuko beharko da. Zerrenda hori zenbakitua izango da, aurkibide modukoa eta baldintza honetan ezarritako ordenari jarraituko dio. B gutun-azalean sartzen den dokumentazio tekniko guztia euskarri elektronikoa ere aurkeztu beharko da (CD, DVD). Euskarri elektronikoa aurkezten den fitxategi-egitura paperezko euskarrian aurkeztutakoaren berdina izango da. Bi euskarrien artean desberdintasunak badaude, paperezko euskarrian aurkeztutako dokumentua hartuko da kontuan, balorazio teknikoa egitean.

Fitxategi bakar bat aurkeztea gomendatzen da, paperezko euskarrian dagoen dokumentazioa bezala zenbakitua eta orrikatua.

Formatu hauek onartzen dira: .odt, .ods, .odg, .doc, .xls, .ppt, .jpg, .bmp eta .pdf. Lizitatzailer ardurak aurkezten den dokumentazioak birusik ez izatea.

B.1. - P1 prestazioaren proposamen teknikoa: Energia-kudeaketa

1. Hornidura-datuen erregistroa eta fakturazioa egiteko proposamena
2. Instalazioaren zaintza-plana
3. Instalazioaren kudeaketa plana, udalari eman beharreko txostenen xehetasuna eta aldizkakotasuna.
4. Energia-kontrolerako telekudeaketa eta monitorizazioa egiteko plana eta proposamena

B.2. - P2 prestazioaren proposamen teknikoa: Instalazioaren mantentze-lanak

1. Egin beharreko ikuskapen eta mantentze eta garbiketa lanak eta aldizkakotasunaren taula jasotzen duen proposamena
2. Egin beharreko lanen deskribapena
3. Mantentze-lanak, ikuskapenak eta garbiketa egiteko enpresak dituen pertsonen kopurua
4. Prebentzioko mantentze-lanak, ikuskapenen plana (garbiketa barne) gauzatzeko egutegia, eta enpresak horretarako erabiliko dituen langileak jasotzen dituen proposamena



B.3. - P3 prestazioaren proposamen teknikoak: Berme osoa

1. Lan horretarako erabilgarri egongo diren ekipoen kopurua, ekipoko egongo diren pertsonen kopurua, ekipo bakoitzak izango dituen baliabide materialak
2. Ekipo bakoitzaren ordutegiak eta hartuko dituen guneak
3. Arreta-telefonoak, ordutegiak
4. Intzidentzia baten berri eman ondorengo erantzun-denbora, intzidentzien sailkapenaren arabera
5. Intzidentzien sailkapena
6. Kontingentzia-planak
7. Prebentziozko mantentze-lanetarako eta mantentze-lan zuzengarrietarako erabiliko diren langileen kopurua, prestazio bakoitzerako nahikoa izango dela adierazten duen egiaztagiria
8. Intzidentzien erregistroaren taularen proposamena
9. Bandalismo eta lapurretengatik hondatutako instalazioak berriz jartzeko erabili beharreko ekipoak eta materialak

B.4. - P4 prestazioaren proposamen teknikoak: Kanpoko argiteria publikoko instalazioak hobetzeko eta berritzeko obrak

Atal horretan, energia kontsumitzeko instalazioak hobetzeko eta berritzeko inbertsioak egiteko aurkezten duen eskaintza zehatz azaldu behar du lizitatuzaileak, Baldintza Teknikoen Agirian zehazten denari jarraituz.

Obrak gauzatzeko egutegi bat izango duen programa zehatz bat ezarriko da.

Memoria horretan **honako atal hauek sartu beharko dira nahitaez:**

- a) Baldintza Teknikoen Agirian proposatutako eta zehaztutako inbertsioen xehetasuna.
 - I. AP taulen kontrol-, maniobra- eta eguneratze-elementuak berritzeko proposamena, instalazio berria osatuko duten ekipo eta elementu guztien zehaztapen teknikoekin.
 - II. Luminariak ordeztzeko proposamena, instalazio berria osatuko duten ekipo eta elementu guztien zehaztapen teknikoekin. Ez da proposatuko LED "Retrofit" sistemarik. Materialen kalitatea eta prestazioak egiaztatzeko berariazko prozedura bat proposatuko da. Hartan aipatuko dira bai markak eta zigiluak, bai erregelamendu aplikagarriekin eta indarrean dagoen legeriarekin ados daudela dioten egiaztagiria, bai eta, nahi izanez gero, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko edozein estatuk legez emandako beste kalitate-bereizgarriak ere.



- III. Argi-fluxua erregulatzeko proposamena, instalazio berria osatuko duten ekipo eta elementu guztien zehaztapen teknikoekin.
 - IV. Estetika- eta uniformetasun-proposamena: hautatutako ereduak eta optikak egokiak ote diren eta ingurunearekin harmonizatzen ote diren aztertzeko analisisa eta udalerriko kale eta eremuetan uniformetasuna aplikatzeko irizpideak.
- b) Argi azterketa, proposaturiko soluzioak instalazio guztietarako eta operazio erregimen guztietarako argi maila egokia eskainiko duela arrazoitzen duen dokumentazioa.
 - c) Inbertsioetan aurreikusitako aurrezkiekin egingo diren jardueren eta energia-azterketen laburpena.
 - d) Proposaturiko neurriak ezartzeko aurreikusitako exekuzio-plana, erabiliko diren giza baliabideen eta baliabide materialen zehaztapena eta lanen denbora-plangintza ere sartuta. Lana egitean erabiliko diren irizpideak eta metodologia deskribatuko dira motzean, baina osorik. Bereziki aipatuko da zein izango diren legeztatzekeko tramiteak eta nola egingo den udaletxeko zerbitzu teknikoekiko koordinazioa eta nola egingo duten haiek lanaren jarraipena.

Konprometitutako energia-aurrezkiek egiteko neurri guztiak ezartzeari epea adierazi beharko da. Bai eta aurreikusitako inbertsioak egiteko exekuzio-plana ere.

Beste edozein informazio gehigarri ere sartuko da gutun-azalean, proposatzaileak uste badu egokia izan daitekeela proposamenaren baloraziorako, baldintza-agiri honetan adierazitako irizpide objektiboen arabera.

14.3“C gutun-azala” (PROPOSAMEN EKONOMIKOA. FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK)

C.1. Proposamen ekonomikoa

Proposamen ekonomikoa besterik ez da egongo gutun-azal horretan, eskaintza-egileak edo haren ordezkariak sinatuta. Baldintza-agiri honen I. eranskinean agertzen den proposamen-ereduari jarraituz egin behar da proposamena. Eskainitako prezioan kontzeptu guztiak sartuko dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa barne, bai eta eragiketari dagozkion beste zerga edo gastu guztiak, joan-etorrien gastuak eta kontratugilearen industria-etekina ere.

Proposamen ekonomikoarekin batera, “Prestazio bakoitzaren azterketa tekniko-ekonomiko zehaztua, xehatua eta justifikatua” ere aurkeztuko da, proposatzen den soluzioaren bideragarritasuna neurtu ahal izateko.



Aurkezten den proposamen ekonomikoak kontratu osoari dagokion urteko zenbateko bakar bati egingo dio erreferentzia, eta P1, P2 eta P3 prestazioen prezioak ere agertuko ditu.

15. DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA

Eskaintzak aurkezteko epea amaituta, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko, mahaiburuak "A gutun-azala" zabaltzeko aginduko du (SPKLTBren 146. artikuluan aipatutako dokumentazioa dago gutun-azal horretan) eta mahaiko idazkariak ziurtatuko du bakoitzean egon behar duten dokumentu guztiak daudela.

Mahaiak konpontzeko moduko akatsak edo hutsak antzematen baditu aurkeztutako dokumentazioan, interesatuei jakinaraziko die, eta lizitatzailleek gehienez ere 3 egun balioduneko epea izango dute akatsak zuzentzeko edo falta diren dokumentuak kontratazio-mahaiari aurkezteko. Alabaina, lizitatzaille baten dokumentazioan oinarritzko akatsak edo zuzendu ezin diren huts materialak badaude, lizitatzaille hori ez da lizitazioan onartuko.

Aurreko paragrafoan aipatutako zuzenketa horretaz gain, beste dokumentu osagarri batzuk eska diezazkieke lizitatzaillei kontratazio-mahaiak, lizitatzailleen kaudimena osorik egiaztatzeko, aurkeztu dituzten egiaztagiriri eta dokumentuei buruzko argibideak edo. Egiten zaien eskaera gehienez bost egun naturaleko epean bete beharko dute, eta betiere proposamenak onartu direla jasotzen duen adierazpena egin aurretik.

Aurreko bi atalen arabera egindakoa jasoko da aktan. Akta hori nahitaez egin beharrekoa da.

Mahaiak, dokumentazioa kalifikatu eta aurkeztu den dokumentazioko akatsak eta hutsak zuzendu ondoren, hautapen-irizpideak betetzen dituzten enpresak zein diren zehaztuko du (administrazio-baldintza partikularren agirian finkatuta daude irizpide horiek), eta berariaz adieraziko du lizitazioan zer enpresa onartu diren eta zer enpresa baztertu diren, bai eta baztertzeko arrazoia zein izan den ere.

Kontuan hartu behar da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-prozedura honi lotutako jakinarazpen guztiak bitarteko telematikoen bidez egingo direla lizitatzailleak emandako helbide elektronikoan.

16. AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK ZABALTZEA

Dokumentazio administratiboa zabaltzeko eta handik zazpi egunen buruan, B gutun-azala (formulak aplikatuz kuantifikatu ezin diren irizpideak) zabaltzeko da, ekitaldi publikoan, eta dokumentazio



guztia hura baloratzeko ardura duen organoari emango zaio. Hori horrela egin dela jasoko da dokumentu bidez espedientean.

Aurreko jarduerak egin ondoren, eta eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hilabeteren buruan, aurretik iragarriko diren egun eta orduan, jendaurreko ekitaldian, balio-judizioaren ponderazioaren emaitza emango da jakitera eta C gutun-azala (Formulak aplikatuz ebalua daitezkeen irizpideak) zabalduko da.

Bere proposamena egin aurretik, kontratazio-mahaiak txosten teknikoak eska ditzake, eta, horretaz gain, aditu-batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak ere parte hartu ahal izango du.

Gerora, eta txosten teknikoak eskuratu ondoren (halakorik eskatu baldin badu), mahaiak proposamenik onena egin duen lizitatzaillearen aldeko esleipen-proposamena helaraziko dio kontratazio-organoari.

Aurkeztu diren proposamen guztiak artxibatuko dira espedientean, bai onartutakoak, bai zabaldu gabe baztertu direnak; bai eta zabaldu ondoren, alde batera utzi direnak ere. Kontratua esleitu eta errekurtsioak aurkezteko epeak errekurtsorik aurkeztu gabe igaro ondoren, proposamenei itsatsitako dokumentazioa interesdunen esku geratuko da.

17. AJDUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera baloratuko dira eskaintzak eta 100 puntuko guztizko puntuazio batean oinarri harturik erregulatuko da, hurrengo ataletan adierazten den balioespenaren arabera:

17.1. Formula aritmetikoak aplikatuz kuantifikatu ezin diren irizpideak: 49 puntu

Gutxienezko lortu beharreko puntuak. 3/2011 Legegintzako EDaren 150.4 artikuluan (SPKJTB) adierazitakoaren arabera, lizitatzailleak kontratugileak hautatzeko prozesutik kanpo geratuko dira, hamabost (15) puntu lortzen ez badituzte "B" (Formulak aplikatuz kuantifikatu ezin diren irizpideak) izeneko gutun-azalean, justifikatutako balorazio-irizpideen bidez lortutako puntuazio-batuketan; eta "C" gutun-azalaren balorazio-fasetik eta irizpide ugariekin irekitako prozeduratik ere kanpo geratuko dira.

Honako parametro hauek aintzat hartuz baloratuko dira eskaintzak:

17.1.1.P1 prestazioaren energia-kudeaketaren proposamenaren balorazio teknikoa: 5 puntu arteko puntuazioa



Jarduera-plana deskribatzen duen memoria bat baloratuko da. Memoria horretan honako prototipo hauek zehaztuko dira, Agiri Teknikoan deskribatutako premien arabera egoki banakatuta:

- Argiteria publikoaren sarea pizteko eta itzaltzeko ordutegiaren proposamena eta haren justifikazioa
- Telekudeaketa, monitorizazio eta kontsumo-kontrolerako sistema (2 puntu)
 - o Kontsumoak eta fakturazioa hilean kontrolatzeko taulen eta grafikoen prototipoa
- Argiztapena eta efizientzia energetikoa hilean kontrolatzeko taulen eta grafikoen prototipoa (puntu 1)
- Egin beharreko inbentario eta planoen proposamena: (2 puntu)
 - o Egin beharreko plano eta eskema kopurua eta bakoitzak jasoko duen xehetasunaren deskribapena
 - o Kanpo Argiteria Publikoaren instalazioaren datu garrantzitsu guztiak jasotzeko inbentarioaren taulen eta fitxen prototipoa

17.1.2. Balorazio Teknikoa: P2 prestazioa. Instalazioen mantentze-lanen programa proposamena: 7 puntu arteko puntuazioa

Mantentze-lanen eta ikuskapenen planaren aurkezpena, baldintza-agiri honetan emandako jarraibide teknikoaren eta kudeaketa-jarraibideen arabera. Proposatutako mantentze-lanen plana, horren memoria zehaztua, baloratuko da. Horretan honako informazio hau zehaztuko da, Baldintza Teknikoaren Agirian deskribatutako premien arabera egoki banakatuta:

- Egin beharreko ikuskapen-mantentze eta garbiketa-lanen eta aldizkakotasunaren taularen proposamena (3 puntu)
- Prebentzioko mantentze-lanen eta ikuskapenen plana (garbiketa barne) gauzatzeko egutegiaren proposamena eta enpresak horretarako erabiliko dituen langileen kopurua (3 puntu)
- Zereginak ondo egiten ari direla kontrolatzeko udalarekin egin beharreko komunikaziorako proposamena (puntu bat)



17.1.3. Balorazio teknikoak: P3 prestazioaren berme osoaren proposamena. 7 puntu arteko puntuazioa

Berme osoko mantentze-lan zuzentzailea egiteko plangintza eta aurreikuspena:

- Lan horretarako erabilgarri egongo diren ekipoen kopurua, ekipoko egongo diren pertsonen kopurua, ekipo bakoitzak izango dituen baliabide materialak (puntu bat)
- Inzidentzien sailkapena. Inzidentziak erregistratzeko taularen proposamena (puntu bat)
- Arreta-telefonoak, ordutegiak (puntu bat)
- Intzidentzia baten berri eman ondorengo erantzun-denbora, intzidentzien sailkapenaren arabera (puntu bat)
- Kontingentzia-planak (puntu bat)
- Bandalismo eta lapurretengatik hondatutako instalazioak berriz jartzeko erabili beharreko ekipoak eta materialak (puntu bat)
- Berme osoan lizitatzailleak sartuko ez dituen material edo prestazioak adieraziko dira espresuki (puntu bat)

17.1.4. P4 prestazioa - Argiteria-instalazioak hobetzeko eta berritzeko obrak eta energia-aurrezkian egiten diren inbertsioak baloratzeko memoria teknikoak, 30 puntu gehienez ere

Gehieneko puntuazioa emango zaio dauden premiei irtenbiderik onena ematen dien memoria teknikoari.

Puntuazioa emateko honako hauek baloratuko dira:

- Ekipoak berritzeko proposamenak eta haiek erregulatzeko eta kontrolatzeko sistemen proposamena zenbateraino diren egokiak. (23 puntu arte). Honako hauek baloratuko dira: argiztapen-kalkuluak, ekipoen ezaugarriak, eta lortutako aurrezkiak jasoko dituen azterketa energetikoa, proposatutako jardueren eta proposatutako ekipoen ezaugarrien koherentzia, argitasuna, zehaztasuna eta xehetasunik handiena.
- Obren exekuzio-plan edo programa onena. (3 puntu arte). Honako hauek baloratuko dira: egutegia, argien funtzionamenduarekin, zirkulazioarekin, bizilagunekin eta abarrekin sortuko dituen interferentziak, proposatutako neurriak exekutatzeko ordena, lanetan erabiliko diren giza baliabideak eta materialak.



- Proposatutako lanpara-ereduen uniformetasuna eta estetika (zer kaletan eta eremutan jarriko diren). (4 puntu arte). Instalazioaren estetika baloratuko da nagusiki, batez ere egunez zer itxura duten, ingurunearekin harmonizatzen diren eta eremuka uniformeak diren (modeloak kaleen eta eremuen arabera bateratuta ote dauden) aztertuta.

Azterlan bat egingo da eskaintzak alderatzeko, eta, kalitate teknikoaren arabera, Zestoako Udalak atalen bat edo denak puntuatu gabe utz ditzake.

17.2. Formulak automatikoki aplikatuz baloratzeko irizpideak: 51 puntu

17.2.1. Prezioa: gehienez ere 51 puntu.

V_e = Balorazio ekonomikoa, formula honen bidez kalkulatu:

$$V_e = V_{\max} - \frac{V_{\max} (B_{\max} - B_e)^5}{(B_{\max})^5}$$

Azalpena:

V_e : Eskaintza ekonomikoan lortutako puntuazioa

V_{\max} : 51 puntu (Gehieneko puntuazioa)

B_{\max} : Lehiaketan aurkeztutako baxarik handiena (%)

B_e : Eskaintzaren baxa (%)

17.3. BERDINKETARIK GERTATZEAN APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDE SOZIALAK

Gerta liteke bi enpresa lizitatzailerik edo gehiago berdinduta egotea eskaintzarik merkeenaren atalean. Horrelakoetan, kontratua esleitzeko zaio eskaintza aurkezteko unean desgaitasunen bat duten plantillako langileen kopurua ehuneko biko baina handiagoa duen enpresari. Hainbat enpresa berdinduta baldin badaude, kontratua esleitzeko orduan lehentasuna izango du plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen ehuneko handiena duen lizitatzailerik.



Era berean, ezar daiteke kontratuak esleitzeko lehentasuna izango dutela —subsidiarioki edo baldin eta puntuazio bera lortu duten enpresa bakoitzaren plantillan dauden langileetatik desgaitasunen bat duten horien kopurua ez bada ehuneko bikoia baino handiagoa— gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak sustatzen eta horiek lan munduan txertatzen berariaz jarduten duten enpresa horiek, zehazki, uztailaren 9ko 12/2001 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian araututakoak (Lege horrek premiazko neurriak ezartzen ditu lan merkatua berritzeko, enplegua handitu eta haren kalitatea hobetzeko). Horrelakoetan, balioetsiko da lizitzaileak konpromiso formala hartu izana bere lanpostuen ehuneko 30 edo gehiago talde hauetako pertsonekin betetzeko (gizarte zerbitzu publiko eskudunek egiaztatu beharko dute hauen egoera):

- a) Gizarteratzeko gutxieneko errenta edo antzeko prestazioren bat jasotzen dutenak (kasuan kasukoa, autonomia-erkidegoan ezarritako izendapenaren arabera).
- b) Aurreko paragrafoan aipatzen diren prestazioak eskuratzetik ez duten pertsonak, dela erroldaturik egoteko eskatzen den denbora-tartea, edo bizilekua edukitzeko eskatzen dena, edo laguntza jasoko duen unitateari eraturik egoteko eskatzen zaiona betetzen ez dutelako, dela laguntza jasotzeko legez ezarritako gehienezko epea amaitu delako.
- c) Hemezortzi urtetik hogeita hamarrera bitarteko gazteak, adingabeak babesten dituzten erakundeetatik datozenak.
- d) Droga-menpekotasun edo alkoholismo-arazoak dauzkaten pertsonetatik errehabilitazio edo gizarteratze prozesuan daudenak.
- e) Lanean aritzeko aukera duten presoak, baldintzapean askatutakoak eta preso ohiak.
- f) Desgaitasunen bat duten pertsonak.

18. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren esleipendunak, hitzartutako betebeharrak beteko direla ziurtatze aldera, behin betiko berme bat eratzeko betebeharra du, esleipenaren zenbatekoaren %5aren bestekoa, BEZa kanpo. Berme hori eratuko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 96. artikuluan ezarri den moduan.

Aipatutako berme hori eratzeko epea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 151.2. artikuluan ezarritakoa izango da, eta hura Udal Diruzaintzan gordailutuko da.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 97. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eratuko da bermea, eta 96. eta 98. artikuluetan aurreikusitako bitartekoen artetik edozein erabil daiteke berme hori eratzeko. Bermea eskudirutan gordailutzeko, dirua bankuko



kontu batean sartu ahal izango da. Esleipendunak behin-behineko bermea erabili ahalko du behin betikoa eratzeko edo berme berri bat eratu.

Bermearen gainean efektiboak egiten baldin badira esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, hamabost eguneko epean betearazpenetik zenbatzen hasita, eta, hala egiten ez baldin badu, kontratua suntsiarazteko kausa gertatu dela jo daiteke.

Baldin eta kontratua aldatu delako kontratuaren prezioak ere aldaketaren bat jasotzen badu, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia enpresaburuari jakinarazi zaion egunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean, kontratua aldatu ondorengo prezioak eta bermeak izan beharreko proportzio izan dezaten. Ildo horretatik, prezio aldaketak ez dira kontuan hartuko, baldin eta horiek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko I. liburuko III. tituluko II. kapituluan adierazitakoa betez prezioa berrikustearen ondorioz gertatu badira. Bermea honako kontzeptu hauek estaltzeko erabiliko da:

- Esleipendunari Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 212. artikuluari jarraituz ezarritako zigorrak (Gauzatze akastuna eta kontratua gauzatzen atzeratzea).
- Kontratuan jasotako prestazioak behar bezala gauzatzea; esleipendunak bere beharrak betetzean atzeratzeagatik Administrazioari sortutako gastuak; eta, kontratua gauzatzean edo hura ez betetzean Administrazioari eragindako kalteak eta galerak, baldin eta kontratua bertan behera uztea ez badagokio.
- Kontratua bertan behera uztean dekreta daitekeen konfiskazioa, kontratuan bertan edo legean ezarritakoa betez.

Bermea erabiltzeko orduan, Administrazio kontratatzaileak lehentasuna izango du beste edozein hartzekodunen aurretik, berdin dio beste hura zer eratako hartzekoduna den edo zer titulutatik datorren haren kreditua. Bermea ez baldin bada nahikoa dagozkion erantzukizun guztiak estaltzeko, Administrazioak premiamendu prozedura administratiboaren bidez kobratuko du aldea, dirua biltzeari buruzko arauetan ezarritakoa betez.

Ez da bermerik itzuliko edo kitatuko harik eta berme-epea amaitu eta dena delako kontratua behar bezala bete arte, edo kontratistaren errurik gabe kontratua bertan behera utzi arte.

Behin kontratuaren likidazioa onetsi eta berme-epea igaro ondoren, eratutako bermea itzuliko da edo kauzio aseguruia edo abala ezeztatuko da, betiere erantzukizunik suertatzen ez baldin bada. Bermea itzultzeko erabakia berme-epea bukatu eta bi hilabeteko epean hartu eta jakinarazi beharko zaio interesatuari. Berme-epea bukatutakoan, zor zaion zenbatekoa ordaindu beharko dio Administrazioak kontratistari, gehi berme-epea bukatzen denetik bermea itzuli den arteko aldiari dagokion diruaren legezko interes-tasak, baldin eta bermea ez itzultzeko arrazoia Administrazioari



egotz badakioke. Zerbitzuaren zati bat jasotzen denean, soilik bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak.

Kontratua gauzatzeko epea amaitu eta, kontratistari egotzi ezin zaizkion zergatiengatik, sei hilabete igarota ez bada harrera-egintza formalik eta likidaziorik izan, bermeak itzuliko zaizkio kontratistari, edo ezereztu egingo dira, beste luzapenik gabe, 88. artikuluan aipatutako erantzukizunak argitu ondoren.

19. ESLEIPENA

Kontratazio-organoak kontratua esleitzeko ebazpena emango du, SPKLTBren 161. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta hura kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esleipenaren berri emango zaio esleipendunari, eta azken horrek, jakinarazpena jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epea igaro ondoren, Udal honetan agertu beharko du kontratua agiri administratibo batez formalizatzeko, SPKLTBren 156. artikuluan araututakoarekin bat etorritik, eta honako agiri hauek aurkezteko:

- a) Zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak betetzen egunean dagoela justifikatzen duen dokumentazioa, edo baimena eman beharko dio kontratazio-organoari dokumentazio hori zuzenean jaso dezan. Atal horretan, hain zuzen ere, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a.1. Dagokion ekitaldian JEZn alta emanda egotearen agiria, edo JEZren azken ordainagiria eta, horren osagarri, erantzukizunpeko adierazpen bat non adierazten duen ez duela bajaran eman kontratuaren xedeari dagokion JEZren epigrafean, betiere JEZ ordaindu behar duten jarduerarik gauzatzen ari baldin bada proposamenak aurkezteko epean, zer lurralde eremutan ari diren, hartan jarduteko ahalmena ematen diona.

- a.2. Lizitatzailleak dagokion foru-ogasunarekiko edo, hala baldin badagokio, estatuarekiko zerga betebeharrak beteta dituela ziurtatzen duen egiaztagiria, aldekoa eta indarrekoa. Zergak foru-ogasun bati ordaintzen dizkioten enpresek aipatu foru-ogasunak egindako egiaztagiri bat aurkeztu beharko dute, foru-ogasun horrekiko zerga betebeharrei buruzkoa. Agiri horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, non adierazten duten ez daudela behartuta estatuko administrazioari aldi berean behin zerga-aitorpenik aurkeztera.



a.3. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako egiaztagiri aldeko eta indarrekoa, harekiko betebeharrak beteta izatea egiaztatzen duena.

Nolanahi ere, enpresa ez baldin badago behartuta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorreko 13. eta 14. artikuluetan adierazitako aitortpenak edo agiriak aurkeztera, horren berri emango da erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

- b) Kontratazio-organoaren alde behin betiko berme bat eratu izanaren egiaztagiria; kontratua zer zenbatekotan esleitu den, haren %5aren bestekoa, BEZ kanpo, agiri honetako 18. artikuluan adierazitako baldintzetan eta norainokoarekin.
- c) Kontratatzeko gaitasuna daukala edo, hala badagokio, kontratua gauzatzeko izendatutako baliabideak, hitzartutakoak, badauzkala frogatzeko, kontratazio-organoak eskatzen dituen agiri guztiak.
- d) Kontratastak erantzukizun zibileko aseguruia baduela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, kontratuaren berezko obligazioen ondorioz eragin litezkeen kalteengatik, agiri honetan eta baldintza teknikoan agirian zehaztutako baldintzetan.
- e) Zestoako Udalari ordaindu beharko zaio aldizkari ofizialetan iragarkia edo iragarkiak jartzearen zenbatekoa, bai eta agiri honetan aipatutako beste gastuak ere, baldin eta azken horiek egiazko gastua izan badira erakundearentzat.

Eskatutako agiriak adierazitako epe horretan aurkezten ez baldin badira, SPKLTBren 151. artikuluan zehaztu bezala, lizitatzailleak eskaintza kendu duela joko da. Hori gertatzen baldin bada, puntuazioaren arabera antolatutako eskaintzen zerrenda hartu eta hurrengo lizitatzailleari eskatuko zaio lehen aipatutako agiri horiek aurkez ditzala.

20. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Lizitazioko baldintzak betetzen dituen administrazio-agiri batez formalizatzean burutuko da kontratua.

Esleipenaren berri emango zaio esleipendunari, eta azken horrek, jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabost egun baliouduneko epea igaro ondoren, Udal honetan agertu beharko du kontratua agiri administratibo batez formalizatzeko, SPKLTBren 156. artikuluan araututakoarekin bat etorritik, eta agiri honetan ezarritakoaren arabera beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu.



Kontratua ez baldin bada formalizatu kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Zestoako Udalak esleipena bertan behera uztea erabaki dezake, SPKLTBren 156. artikuluan ezarritakoarekin bat.

21. UKO EGITEA ETA ATZERA EGITEA

Kontratazio-organoari dagokio, baldin eta behar bezala justifikatutako interes orokorreko arrazoiak badira tarteko, esleipena egin aurretik kontratua egiteari uko egitea. Horretaz gainera, esleitzeko prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta ikusten bada kontratua prestatzeko arauak edo esleipen-prozedura arautzen dutenak zuzendu ezin daitekeen modu batean hautsi direla.

22. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratistaren gain izango dira kontratua gauzatzeak dakartzan ustekabeak.

Kontratua gauzatzean agiri honetan jasotako klausulak beteko dira eta, hala badagokio, espedienteari lotutako zehaztasun teknikoak, betiere horiek interpretatzeko asmoz Zestoako Udalak kontratistari emandako jarraibideekin bat etorriz.

Kontratistari edo haren mendeko pertsoneri egotz dakizkiokeen egintzen edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen baldin bada, Zestoako Udalak egoki irizten dizkion neurriak har daitezela eskatu ahal izango du, kontratua ondo gauza dadila lortzeko edo gauzak bere onera ekartzeko.

Edonola ere, jarraibide eta oharpen horiek ez dizkiote, inola ere, betebeharrak gehiago ekarriko esleipendunari.

Esleipendunak oharpen horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

23. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Kontratistak bete behar ditu azpikontratazioari buruz azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 227. artikuluan ezarritako baldintzak (Legegintzako Errege Dekretu horrek Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten du).

Kontratu honen araubide juridikoari dagozkion betebeharrak orokorrez gain, kontratistak betebeharrak espezifiko hauek ere izango ditu:



23.1. Giza baliabideak

Argiteria publikoan esku hartuko duen lantaldeko kideen izenen eta titulazioen zerrenda eranstea. Administrazio titularrak ez du harreman juridikorik, laneko harremanik edo bestelakorik izango enpresa esleipendunaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean ez eta hura bukatzean ere. Esleipendunak ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, langileak zer lanbide-kategoria duen, halakoa; eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da, inola ere, horren azpikoa izan.

Kontratututako zerbitzuak eteten badira edo horietan atzerapenik baldin badago, esleipendunak ezin izango du alegatu langilerik ez duela, une oro izan behar baititu kontratua gauzatzeko behar dituen langileak, eta horrek ez du inolako eraginik izan behar kontratuaren kostuan.

Mantentze-lanez arduratzen diren langileek indarreko arauetan eskatutako kualifikazioa izan beharko dute (EITE, BTEE, eta abar), lanbide baimenei dagokienez, bereziki; eta frogatu behar dute badutela eskarmentua kontratu honen xede diren instalazioetan mantentze-lanak egiten eta horiek konpontzen.

23.2. Erabili beharreko ibilgailuak eta baliabideak

Esleipendunak idatziz adierazi behar du zer material higigarri lotuko dion zerbitzuari. Eskaintzen dituzten material, ibilgailu eta makineria guztia erabilera- eta mantentze-baldintza bikainetan egon behar du. Baliabideek baldintza horiek betetzen ez baldin badituzte, Administrazio titularreko teknikariek baztertu ahal izango dituzte, eta, horien ordez, eskaintzan zehaztutako ezaugarri berdinak dituzten baliabide egokiak jarri beharko ditu esleipendunak.

Kontratua gauzatzeko erabiliko diren materialak eta tresnek administrazioaren onarpena eduki beharko dute.

23.3. Asegurua

Esleipendunak erantzukizun zibileko poliza bat izenpetuko du, hirugarrenei (pertsonei edo gauzei) eragindako kalteetarako. Haren bidez estaliko baitira kontratua gauzatzeko egin behar diren ekintzen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galerengatik sor litezkeen kalte-ordainak, berdin berez sortutakoak izan edo esleipendunaren mendeko langileek edo baliabideek eragindakoak izan. Aseguru horrek 600.000 euroko estaldura izango du, gutxienez ere.



23.4. Osasuna eta segurtasuna lanean

Esleipendunari dagokio, eskusiboki eta erantzukizun osoz, honako gai hauen eskumena: laneko istripuak, laneko segurtasun-arauak, gizarte aurreikuspen eta segurtasuneko arauak, eta kontratu honen xede diren lanei aplika dakizkiekeen xedapen guztiak.

Horrez gain, Administrazioaren esku jarri behar du aurreko eskakizunak justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia; tartean, urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretuan xedatutako Segurtasun eta Osasun Plana. Azken hori eskaintzari erantsiko zaio.

23.5. Zaintzea eta ikuskatzea

Enpresa esleipendunak egin beharreko lanak ikuskatzeko ahalmen osoa izango dute, denbora guztian, Administrazio teknika-riek, agiri honetan ezarritakoa betetze aldera.

Enpresak erraztu behar du Administrazio-ko zerbitzu teknikoetako langileek egiten duten edozer ikuskatze-bisita.

23.6. Kontratatari eska dakizkiokeen betebeharrak, gastuak eta zergak

Kontratua klausulei lotuta gauzatuko da, eta hura interpretatzeko asmoz Administrazioak kontratatari emandako jarraibideekin bat etorriko da. Kontratatariaren kontura izango dira honako hauek guztiak: gastuak eta zergak; iragarkiak, aldizkari ofizialetan, egunkari ofizialetan nahiz edozer hedabidetan argitaratutakoak; kontratua formalizatzeko gastuak, baldin eta hura eskritura publikoan jaso behar baldin bada; eta horniduraren xede diren ondasunak behar bezala entregatzeko eta gauzatzeko egokiak diren lizentzia eta baimen guztiak. Estali beharko ditu, baita ere, kontratua gauzatzean enpresak egin beharko dituen gastu guztiak, hala nola gastu orokorrak, finantzarioak, aseguru- en gastuak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, haren menpeko langileen ordainsariak, egiaztatze- eta entsegu-gastuak, tasak eta era guztietako zergak (BEZa, jarduera gauzatzeagatik ordaindu beharreko zerga) eta kontratua indarrean egon bitartean hura gauzatzeagatik sor daitezkeen beste edozein. Berariaz gelditzen da jasota kontratatariaren kargura izango direla horniduraren xede diren ondasunak adierazitako lekuan entregatzeko eta garraiatzeko gastuak.



Era berean, kontratistak bere kargura izenpetu beharko ditu kontratazio-organoak egoki irizten dizkion aseguru-polizak. Lizitatzailleek egiten dituzten eskaintzetan nahiz esleipen-proposamenetan, kontzeptu bakoitzagatik ezar daitezkeen zergak barnean hartzen direla joko da, ondorio guztietarako. Eskaintza ekonomikoan, edonola ere, Balio Erantsiaren Zergaren (BEZaren) zenbatekoa adieraziko da aparteko kontu-sail batean.

23.7. Geroko instalazioak

Zerbitzu energetikoen enpresak bere gain hartzen dituen eta baldintza agiri honetan aurreikusi ez diren geroko instalazioek, bide publikoan gauzatzekoek, bat etorri behar dute Efizientzia Energetikoari buruzko Erregelamenduan ezarritakoarekin (1890/2008 ED), bai eta kontratuak irau bitartean gerora sor daitezkeen arau nahitaez bete beharrekoetan xedatutakoarekin ere.

23.8. Hornitzeko puntu berriak

Zerbitzu energetikoen enpresak kudeatu eta kontratatuko ditu agiri honetan jaso ez diren kontratu eta hornitzeko puntu berriak.

24. KONTRATUA ALDATZEA

SPKLTBren I. liburukiaren V. tituluaz azaldutakoarekin eta 219. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, hura formalizatu ondoren, Administrazioak aldaketak egin ahal izango ditu kontratuetan soilik interes publikoko arrazoiak tarteko badira eta, betiere, SPKLTBren 107. artikuluan adierazitako kasuetan bai eta lizitazioa arautzen duen dokumentuetan aurreikusitako kasuetan ere, SPKLTBren 106. artikuluan xedatutakoa oinarri hartuz betiere.

SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako kasuez gain, honako kasu hauetan ere aldatu ahal izango da kontratua:

- Hirugarrenen edo Administrazioaren jarduketek edo ezin aurreikus daitezkeen arrisku egoerek eragina dutenean kontratuaren garapenaren eta ekonomiaren gain, baldin eta haren ondorioz ez bada aldatzen kontratuaren prezioa %3 baino gehiago.



- Baldintza teknikoan agiriaren eranskinean aurreikusitakoez bestelako instalazioak gehitzen zaizkionean kontratuaren xedeari.
- Baldintza teknikoan agiriaren eranskinean aurreikusitako instalazioetako bat edo batzuk kentzen direnean kontratuen xedetik.
- Haien gain mantentze-lanak egin beharreko ekipoen kopurua handitzen, murrizten edo ekipoa kentzen edo beste batzuentatik aldatzen direnean, baldin eta horiek kontratuan jaso baldin badira.
- Administrazioak, kontratuarekin lotura zuzena ez izan arren kontratuaren xede diren prestazioen edo haren araubide ekonomikoaren gain eragina duen edo izan dezakeen arau bat onetsi edo administrazio-egintza bat ematen duenean, baldin eta haren ondorioz ez bada aldatzen kontratuaren prezioa %3 baino gehiago.

Edozein kasutan, kontratuan egindako aldaketek ezin izango dute izan, inola ere, kontratuaren prezioaren %10 baino handiagoak urte guztietan [$10 \times (P1+P2+P3)$]. Arestian aipatutako baldintzak betetzen baldin badira, ziurtatu beharra dago kontratuaren araubide ekonomikoak oreka ekonomikoari eusten diola, kontratua esleitzeko orduan kontuan hartu diren baldintzetan.

SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusi diren kontratua aldatzeko baldintzei buruz, 108.2. artikuluan eta 211. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, kontratuan dagokion aldaketa egin aurretik, kontratazio-organoak kontratistari entzunaldia eskaini beharko dio. Azken horrek kontratuaren gain proposatutako aldaketari zer iritzi dion adierazi beharko du Administrazioak hala eskatu dionetik hamabost (15) eguneko epean.

Kontratuan egindako aldaketak bete beharrekoak izango dira esleipendunarentzat, eta SPKLTBren 156. artikuluan xedatutakoari jarraituz formalizatu beharko dira.

25. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Eskaintza ekonomikoan ageri diren P1, P2 eta P3 prestazioetako prezioak berrikusiko dira gutxienez ere kontratuaren zenbatekoaren %20 gauzatu denean, eta hura formalizatu denetik urtebete igaro denean.

Formula hauek aplikatuko dira prezio horiek berrikustean:

25.1. Energia-kudeaketa (P1 prestazioa)



Prestazio horri dagozkion zenbatekoak elektrizitatearen prezioen arabera berrikusiko dira, jarraian adierazten den moduan:

$$P'1 = P1 \times (E'/Eo)$$

P'1: Berrikusitako prezioa (€).

P1: Kontratua hasten den egunean eskaintza ekonomikoan ageri den prezioa (€).

Eo: Elektrizitatearen erreferentzia-prezioa argiteria publikoan, energia €/kWh-tan erosteko prezioari dagokiona, kontzeptu guztiak barnean hartuta (potentzia, energia, alokairuak, zergak, eta abar) energia elektrikoa behe-tentsioan hornitzeko kontratuetak datuen arabera, 0.1292 €/kWh egungo balioztat hartuta (BEZ barne) 2016ko kontsumoetatik eta fakturetatik hartuta.

E': Elektrizitatearen erreferentzia-prezioa argiteria publikoan, energia elektrikoa €/kWh-tan erosteko prezio errealari dagokiona, kontzeptu guztiak barnean hartuta (potentzia, energia, alokairuak, zergak, eta abar) esleipendunak energia elektrikoa behe-tentsioan eroste aldera sinatutako kontratuekin bat etorritik, zeinak indarrean egon behar duen berrikusiko den urtearen lehen hilabetetik, urte oso bat igarota, kontratua sinatu den hilabetea erreferentziazat hartuta (BEZ barne).

25.2. Mantentzea (P2 prestazioa).

Prestazio horren zenbatekoa urtero berrikusi ahalko da, 2/2015 Legea martxoaren 30ekoa, Espainiako ekonomiaren desindexazioaren legean jasotakoaren arabera, honako formula hau aplikatuz:

$$P'2 = P2 (1 + I)$$

Non:

P'2: Berrikusitako prezioa (€).

P2: Aurreko urteko prezioa (€).

I: Zerbitzuarekin lotura zuzena duen kostuen indizea.

25.3. Berme osoa (P3 prestazioa)

Prestazio horren zenbatekoa urtero berrikusiko ahalko da,



2/2015 Legea martxoaren 30ekoa, Espainiako ekonomiaren desindexazioaren legean jasotakoaren arabera, honako formula hau aplikatuz:

$$P'3 = P3 (1 + I)$$

Non:

P'3: Berrikusitako prezioa (€).

P3: Aurreko urteko prezioa (€).

I: Zerbitzuarekin lotura zuzena duen kostuen indizea.

25.4. Berrikuntza teknologikoengatik prezioak egokitzea kontratua indarrean izan bitartean

Kontratua indarrean dagoen bitartean esleipenduna ohartuko balitz, instalazioetan berrikuntzak eginez gero energia aurrezteko aukera duela, Kontratuaren Zuzendaritzari proiektuaren bideragarritasun-plana aurkeztu beharko dio. Azken hori onetsi beharko da obrak gauzatu ahal izateko.

26. INSTALAZIOAK ALDATZEAGATIK PREZIOAK EGOKITZEA

Instalazioak aldatzeagatik prezioak egokituko dira baldin eta aldatu diren argiteria-puntuen kopuruak %3 baino handiagoa bada.

Instalatutako argiteria publikoaren puntuen kopurua handitzen edo txikitzen den bakoitzean, P2 eta P3 prestazioetako prezioak handitu edo txikituko dira, formula hau aplikatuz:

$$P'2 = P2 \times (NPf / NPi)$$

Non:

P'2: Berrikusitako prezioa (€/urte).

P2: Urteko prezioa, kopurua handitu/txikitu aurretikoa.

NPf: Handitzearen/txikitzearen ondoren dauden argien kopurua

NPi: Handitzearen/txikitzearen aurretik zeuden argien kopurua

$$P'3 = P3 \times (NPf / NPi)$$

Non:

P'3: Berrikusitako prezioa (€/urte).

P3: Urteko prezioa, kopurua handitu/txikitu aurretikoa.

NPf: Kopurua handitu/txikitu ondoren dauden argien kopurua



NPi: Kopurua handitu/txikitu aurretik zeuden argien kopurua

27. BERME-EPEA

Kontratuaren xedea urte bateko berme-epera lotuta egongo da, lana jaso edo harekin adostasuna agertu den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan, Administrazioak egiaztatu ahal izango du gauzatutako lanak betetzen dituela hura gauzatzeko eta betetzeko ezarritako baldintzak, bai eta agiri honetan nahiz baldintza teknikoan agirian xedatutakoa ere. Berme-epea igarotzen baldin bada eta bitarte horretan ez baldin bada gauzatutako lanei buruzko eragozpenik izan, kontratistaren erantzukizuna iraungiko da.

28. LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Edozein erakunde publikok edo pribatuk diru-laguntzen lerro baterako deialdia egingo balu, eta kontratatu honen inbertsioetako edozeinek diru laguntza jasotzeko aukera balu, esleipendun horrek diru-laguntza jasotzeko eskaera egiteko dokumentazioa prestatu beharko du bai eta, hala badagokio, egon litezkeen akatsak zuzentzeko eta hobetzeko, eta hori guztia justifikatzeko agiriak ere, bai eskatzailea enpresa esleipendunak izan behar duenean, bai Udalak izan behar duenean ere.

Nolanahi ere, ematen den diru-laguntzaren onuraduna Udala izango da, hura baita inbertsioaren jabea, eta, horrenbestez, Udalak erabakiko du zertara bideratuko duen ematen dioten diru-laguntzaren zenbateko osoa. Zehazki, honako hauetarako erabil daiteke:

- Amortizatzeko dagoen kapitala amortizatzeko
- Interes publikoko beste inbertsio batzuk gauzatzeko
- Instalazioak arauetan xedatutakora egokitzeko edo inbertsio osagarriak egiteko

29. ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK

29.1. Esleipendunak zorrotz bete beharko ditu agiri honetan, baldintza teknikoan agirian eta kontratuaren helburuari lotutako agiri guztietan ezarritakoaren ondorioz zuzenean edo zeharka sortutako betebeharrak guztiak, bai eta, agiri honetan zehaztutakoez gain, jarraian aipatzen diren hauek ere:

- 1) Kontratuaren xede diren zerbitzuak ematea eta hornitu beharrekoak hornitzea, etenik gabe, eraginkortasunez eta arduraz; eta, hori egitean, zorrotz betetzea kontratu hau



arautzen duten baldintza-agirietan nahiz zerbitzu hau kudeatzeko asmoz esleipendunak eskainitako hobekuntzetan xedatutakoa, etenik gabe, ez baldin bada ezinbesteko legezko arrazoiren bat tarteko izan. Bat-bateko eta ustekabeko gertakarien bat izaten bada, esleipendunarekin zerikusirik ez duena, eta horren ondorioz ezin baldin bada kontratua normaltasunez gauzatu, Udalbatzak dagokion agindua emango du, nahiz eta ekonomiaren kontratuan subertsio bat eragin. Horrelakoetan, inguruabar horiek tarteko izanik sortu zaizkion gastuengatik ordaina emango zaio kontratistari, betiere, legeetan aurreikusitako baldintzak betez, eta kontratuaren prezioa ohiz kanpo berrikusteari buruz agiri honetan xedatutakoari jarraituz.

- 2) Kontratistaren kontura izango dira, lizitazio iragarkiaren edo iragarkien gastuak eta zergak, bai eta kontratuaren formalizazioari dagozkionak, eta gai hauei buruz legeetan ezarritako beste guztiak ere.
- 3) Lizitazio honen xede den zerbitzu publikoa ematea, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.
- 4) Ez uztea besteren esku kontratuari lotutako ondasunetatik Udalari itzuli beharreko horiek, ezta horiei kargarik ezartzea ere, betiere Zestoako Udalak ez baldin badu berariazko baimenik eman. Horrez gain, hizpide ditugun ondasunak ondo zainduta eduki behar dira, eta funtzionamendu egoera onean.
- 5) Norberak betetzea kontratua, eta ez uztea hirugarrenen esku Udal honen baimenik gabe. Udalak, bidenabar, horretarako baimena eman ahal izango du administrazio-kontratazioa arautzen duten legeetan adierazitako baldintzetan.
- 6) Azpikontratazioa zerbitzu osagarrietara mugatzea, eta betiere Udalari aldeztu aurretik jakinarazita.
- 7) Kontratuaren xede diren zerbitzuei lotutako materialak, ibilgailuak, instalazioak eta langileentzako lokal egoki bat izatea. Udalak horiek guztiak onetsi beharko ditu horiek zerbitzua emateko erabili aurretik.
- 8) Onartzea hileko fakturretatik kenduko zaiola kontrataren zenbatekotik behar ez bezala edo partzialki emandako zerbitzuei dagokien zati proportzionala, edo dagozkion zigorrak.
- 9) Kontratistaren ardura izango da lehiaketa honen xede diren lanen kalitatea. Horretarako, lan hau egiteko prest dauden langile arduratsuak izan behar ditu, eta une oro bete behar ditu gaur egun ezarrita dauden edo etorkizunean ezar daitezkeen arau aplikagarriak, berdin jatorria Europako, nazioko, autonomia-erkidegoko edo tokian-tokiko legeak izan.
- 10) Lan guztiak gauzatzean, kontuan izan behar da ahalik eta gutxien eragotzi behar dela herritarren eguneroko martxa. Hartara, zarata eta kutsadura murriztuko dira, bide publikoan ahalik eta zatirik txikiena hartu, trafikoaren zirkulazioa erraztu, eta abar.



- 11) Jatorria SPKLTBren IV. liburuaren II tituluaren IV. eta V. kapituluetan duten arau guztiak, edo unean-unean aplika daitezkeen arauak.
- 12) Kontratazio honen ondorioz esleipendunak esleitzen dituen hornidura-kontratuetan, ezin izango dira nazionalitate arrazoiengatik baztertu Europar Batasuneko estatuetao enpresak, ez eta Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetaoak ere.

29.2. Agiri hauetan berariaz jasotako betebeharez gain, esleipendunaren ardura izango da:

- 1) Hirugarrenei eragindako kalte eta galerengatik kalte-ordaina ematea, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenari jarraiki.
- 2) Zerbitzua ematearen ondoriozko erantzukizun guztiak bere gain hartzea, zibilak zein zigor arlokoak.
- 3) Kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko langileak kontratatzearen ondorioz lan arloan izan ditzakeen erantzukizun guztiak betetzea.

30. IRAGARKIEN, ZERGEN ETA AZTERNALEN GASTUAK

Kontratastaren kargura izango dira kontratua behar bezala gauzatu ahal izateko, hau da, hura kalitate eta segurtasun berme guztiekin gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren gastu guztiak, agiri honetan ezarritako baldintzak nahiz zuzenean zein zeharka aplika daitezkeen legeetan ezarritakoak betez.

Esate baterako, kostu horien artean honako hauek ere izango dira:

- 1) Lizitazioaren publizitate-gastuak.
- 2) Eskaintza aurkezteko beharrezkoak diren udal-gastuak: agindu teknikoaren azterlana, fotokopiak, agiriak erkatzea eta egiaztatzea, posta edo mezularitzako gastuak, eta abar.
- 3) Eskatzen diren bermeak eratzeko eta mantentzeko gastuak.
- 4) Kontratu dokumentu publiko baten bidez formalizatzeko gastuak, baldin eta esleipendunak hala eskatzen badu; esleipendunak zuzenean ordainduko dizkio fedemaile publiko eskuesleari.
- 5) Lizenziak edo beharrezkoak diren beste baimen batzuk izapidetzeko gastuak; horren barnean sartuko dira lanei ezarritako zergen eta tasen ordainketa, edo aipatu baimen eta lizenziak kontratatzeke izapide administratiboak.



- 6) Lanak gauzatzeko ekipoen eta materialen kostuak; horren barnean sartuko dira materialak, makineria, eskulana (soldatak, gizarte-aseguruak, eta abar), horien lekualdatzeak eta lanak gauzatzeko tokia mantentzea.
- 7) Kontratuaren gauzatzearen jarraipena eta koordinazio orokorraren ondorioz sortutako gastuak: jardueren segurtasun-neurriak eta kalitateak eta horien kontrolak.
- 8) Ur, argi, telefono edo beste hornidura batzuetako gastuak, eta dagozkion baimenenak.
- 9) Lur-eremuak aldi batez hartzeagatiko gastuak eta kalte-ordainak, baita trafikoa moztu edo desbideratzearen ondorioz sortutakoak, eta lanak gauzatzea errazteko edo lanek herritarrei sor diezazkieketen eragozpenak murrizteko beharrezkoak diren beste jardueren ondorioz sortutakoak ere.
- 10) Gizarte erantzukizuneko aseguruak, istripu-aseguruak eta lanak gauzatzeak nahiz horiek zaintzeak dakartzan arriskuak bermatzeko asmoz beharrezkotzat edo egokitzen jotzen den beste edozer aseguru.

31. KONTRATISTARI ORDAINTZEA

Kontratatik eskubidea izango du kontratu honetan aurreikusitako kontraprestazio ekonomikoak jasotzeko, zeinak hileroko ordainduko zaizkion.

32. ZESTOAKO UDALAREN PRERROGATIBAK ETA ESKUMENAK

1. Administrazioaren prerrogatibak. Kontratazio-organoak prerrogatiba hauek izango ditu agiri honek arautzen duen kontratuaren gain: kontratu hori interpretatzea eta hura betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzea; kontratua aldatzea, interes orokorreko arrazoiak baldin badira tarteko; kontratua baliogabetzea eta hura baliorik gabe uztearen ondorioak zehaztea; bai eta kontratu honi buruz indarreko legeetan, baldintza administratiboan agiri honetan, baldintza teknikoan agirian eta kontratuaren helburuari lotutako agiri guztietan aitortutako prerrogatiba guztiak. Hori guztia SPKLTBren 210. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Prerrogatiba horiek gauzatzeko orduan, SPKLTBren 211. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Alde horretatik, Udalak gai horri buruz hartutako erabakiak betearaztekoak izango dira eta administrazio-bidea amaituko dute. Prerrogatiba horiek betetzeak eraginik baldin badu kontratuari lotutako harreman ekonomikoaren gain, aipatu arau horietan xedatutako kalte-ordainak emango dira.
2. Udalaren eskumenak.



Udalari dagozkio, agiri honetan araututako kontratuaren gain, agiri honetan, baldintza teknikoen agirian eta kontratuaren helburuari lotutako beste agiri guztietan araututakoaren ondorioz zuzenean edo zeharka sortutako eskumen guztiak, bai eta aplika daitezkeen legeetan hari esleitutako gainerako ahalmen guztiak ere, hori guztia aipatu legeetan xedatutakoa betez. Bakar-bakarrik horien berri emate aldera, aipatutako eskumenen artean honako hauek ere daude:

- Zerbitzua nola emango den arautzea, instalazio berrien oinarritzko ezaugarriak zehaztea, eta lehendik daudenak konpon daitezela erabakitzea.
- Esleipendunaren kudeaketa kontrolatzea. Zeregin horretan, zerbitzua ikuskatu ahal izango du, baita esleipendunaren lanak, instalazioak eta lokalak, eta kontratuaren xedeari lotutako dokumentazioa ere; kontu-ikuskaritzak agin ditzake eta dagokion zerbitzua ematen jarraitzeko edo hura berrezartzeko aginduak eman.
- Fakturak zuzen daitezela eskatzea, eta, horrez gain, zigorrak jar litezke araua behar bezala ez betetzeagatik.
- Zerbitzua zuzenean emateko ardura aldi baterako bere gain hartzea, baldin eta esleipendunak ez baldin badu edo ezin baldin badu eman, berdin horren arrazoia hari egotz dakiokeen edo ez.
- Zer arau-hauste egin duen, horren araberrako zehapenak edo zigorrak ezartzea esleipendunari.
- Kontratuaren xede diren zerbitzuak behar bezala martxan daudela ziurtatzeko beharrezkoak diren zaintza-ahalmenak.

33. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Agiri honetan ezarritako zigorrak ezarriko zaizkio enpresa esleipendunari, baldin eta ez badira betetzen honako hauetan xedatutako betebeharrak: SPKLTB, baldintza-agiri hau, baldintza teknikoen agiria, esleipendunaren proposamena, eta, udalaren instalazioetan inbertsioa eginez kontsumo energetikoaren eta kanpoko argiteriaren zerbitzu publikoaren kudeaketa integrala egiteko kontratua formalizatzeko dokumentua. Horretaz gainera, Udalari eragin ahal izan zaizkion kalte eta galerengatiko ordaina eman beharko du enpresak, baita behin betiko bermeak estaltzen ez duen oro ordaindu ere.



Esleipendun suertatu den pertsona fisiko edo juridikoak kontratua sinatzeak berarekin dakar zigor hauek onartzea.

Zigorren tipifikazioa

Hiru multzotan sailkatzen dira kontratuaren xede den prestazioa gauzatzean esleipendunak izandako ez-betetzeak: oso larriak, larriak eta arinak.

Ez-betetze oso larriak:

- Energia hornitzen duten konpainiei energia-horniketengatiko fakturak ez ordaintzea. Oso larritzat joko da baldin eta faktura bat edo bat baino gehiago ordaindu ez badira.
- Berandu hastea mantentze-zerbitzuak ematen, aurreikusitako eguna baino egun bat beranduago, baldin eta ezinbesteko arrazoirik tarteko ez bada.
- Berehala esku ez hartzea jarduera berezi edo premiazko baten beharra duen egoera baten berri izan edo hura jakinarazi ondoren (epe maximoa: ordu erdi).
- Zerbitzuak gaizki eta arauz kontra ematea, nabarmenki.
- Ordutegietan atzerapen sistematikoak egotea, ezarritako baliabide mekanikoak ez erabiltzea, baliabide horiek behar bezala ez zaintzea edo tenperaturak ez betetzea.
- Zerbitzuen arau eta araubideari nahiz, oro har, zerbitzuak emateko baldintzak ezarriko dituzten arauak buruz kontratazio-organoak emandako aginduak ez betetzea.
- Agiri honetan ezarritako baldintza eta epeetatik edozein ez betetzea. Horrek zenbait ekintza ekar ditzake, gerora ere.
- Zerbitzua emateko segurtasun-neurririk edo elementurik ez egotea.

Ez-betetze larriak:

- Zerbitzuak atzerapenez ematea, baldin atzerapen hori sistematikoa ez bada.
- Enpresa esleipenduneko langileek hirugarrenekin izandako gorabeherak, dela behar bezala tratatu ez dituztelako, dela zerbitzua behar bezala eman ez delako.
- Falta arinak behin eta berriz egitea.
- Zerbitzua aldatzea, justifikatutako arrazoirik egon gabe eta alde aurretik jakinarazi gabe.

Ez-betetze arinak:

Arestian aurreikusi ez direnen artean, ez-betetze arintzat joko dira agiri honetan ezarritako baldintzak nolabait kaltetzen dituzten ez-betetze guztiak, baldin eta galera larrikeria eragiten ez badute zerbitzuen gain, edo gabeziak eragiten baldin badituzte langileengan edo erabilitako baliabideetan.



Zestoako Udalak kontratua ez suntsiaraztea erabakitzen baldin badu, jarraian adieraziko diren zigorrak ezarriko zaizkio esleipendunari:

Zigorren zenbatekoa

Arau haustek zigortzeko, isun bat jarriko da, enpresa esleipendunaren urteko eskaintzaren gain (esleipena egin ondoren kontratuaren urteko guztiko zenbatekoaren gain). Isunaren zenbatekoa kalkulatzeko, ehuneko hauek aplikatuko zaizkio kontratuaren urteko guztizko zenbatekoari:

- Arau-hauste oso larriak: lehen aldian %1, eta, errepikatuz gero, %2.
- Arau-hauste larriak: lehen aldian %0,25, eta, errepikatuz gero, %0,5.
- Arau-hauste arinak: lehen aldian %0,1, eta, errepikatuz gero, %0,2.

Dagozkion zigorrak ezartzeaz gain, esleipenduna atzeratu egiten baldin bada bere ez-betetzeen ondorioz sortutako egoerak konpontzen, Udalak eskubidea izango du, edozer unetan, horiek konpontzeko egoki diren neurriak onartzeko. Eta, neurri horiek gasturik sortzen baldin badute, Udalak dagozkion bermeen kontra jarduteko eskubidea izango du.

Zigorrak ezartzeaz gain, bete ez diren betebeharrak bete ditzala eska dakioke enpresa esleipendunari.

34. PRESTAZIOAK EZ BETETZEA

Aurreko atalean adierazitako zigorrak alde batera utzita, Udalak zigor edo deskontu hauek aplikatzeko eskubidea izango du kontratuaren barnean bildutako prestazioak ez betetzeagatik:

- Baldin hornidura guztiz edo hein batean eteten baldin bada, berdin dio zer arrazoirengatik gertatu den, egin ez den horniketa zenbatekoa den, hainbateko murrizketa egingo da fakturazioan.
- Baldin eta esleipendunari egotz badakizkioke hornidura eten izana edo hura nahikoa izan ez izana, Udalak joko du gutxienez ere jardunaldi oso batez ez dela eman energia-kudeaketaren zerbitzu bat. Kasu horretan zer zigor aplikatuko den kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da:

(Kontratuaren urteko prezioa / 365 egun) x horniketa eten edo nahikoa izan ez den egunen kopurua



Udalak errekerimendua egingo du zerbitzuak gauzatu eta hornidura ematean izaten diren ez-betetzeen harira, eta errekerimendu hori modu frogagarrian jakinaraziko da.

Errekerimendua jaso ondoren ere salatutako ez-betetzea egiteari eusten baldin badio, Udalak beste errekerimendu bat egingo du; eta errekerimendu hori ere ez baldin bada kontuan hartzen, Udala kontratua suntsiarazteko espediente bat abiaraz dezake.

35. KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DUEN ERANTZUKIZUNA

Kontratista izango da kontratua gauzatzeko egin beharreko eragiketen ondorioz eragindako kalte eta galeren erantzule; halaxe xedatu baita SPKLTBren 214. artikuluan.

Horretarako, esleipendunak aurkeztu beharko du, aitzakiarik gabe, kontratua sinatzeko unean indarrean den erantzukizun zibilaren aseguruaren kopia. Aseguru horrek estali behar ditu kontratu honek helburu duen zerbitzua emateko gaitzen duen lanbidea gauzatzearen berezko arriskuak. Aseguru horren berritze-agiriak ere aurkeztu beharko dira kontratu hau gauzatu bitartean.

36. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOKO BETEBEHARRAK

Kontratistak bete egin behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasunari eta osasunari buruz indarrean dauden legezko xedapenak, eta, horiek betetzen ez baldin baditu, kontratazio-organoa erantzukizuna izatetik salbuetsita egongo da. Esleipendunak adierazi beharko du zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuak helburu duen jarduera gauzatzen duten langileei, eta eman beharko du kontratua esleitu ondoren langile horiei eraginkortasunez aplikatzen zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia. Esleipendunak ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, langilea zer lanbide-kategoria duen, halakoa; eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da, inola ere ez, horren azpikoa izan (Kontratazio Publikoan zenbait Klausula Sozial sartzeari buruzko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5. artikulua).

Zerbitzuari lotutako langileak kontratistaren mende baino ez dira egongo, eta azken horrek enpresaburu izanagatik haiekiko izan behar dituen eskubide eta betebeharrak guztiak izango ditu.



Kontratatutako, oro har, enplegatzaile izanagatik ezarri zaizkion betebeharrak guztiak beteko ditu, bai eta, kontratatutako berak edo haren azpikontratatutako batoren zein bestearen langileekin duten laneko harremana, edo beste era batekoa, arautzen eta garatzen duten arau guztiak ere. Horrela bada, Udalak ez du bere gain hartuko aipatu arauetako bat ez betetzearen ondorioz erakunde eskudunek ezar dezaketen isun, zigor edo edozer eratako erantzukizunik.

Zestoako Udalak kontratatutako enpresa orok erakundearen beraren Prebentzioaren Aseguramendurako Gidaliburua eta Prozeduran adierazitakoa bete beharko du, bai eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legean eta aplikatzekoak diren indarreko beste lege-xedapen batzuetan jasotako xedapenak ere. Horretarako, enpresa esleipendunek laneko arriskuei buruzko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte kontratua gauzatzen hasi aurretik:

- 1) Zestoako Udalak emandako "Azpikontratatutako kontraten segurtasunaren eta osasunaren klausula", behar bezala sinatuta.
- 2) Zestoako Udalak emandako "Segurtasun eta osasun arloko arau orokorrak kontratatutako/azpikontratatutako enpresentzat" agiria, behar bezala sinatuta.
- 3) Enpresak prebentziozko zer antolamendu modalitatetara bildu den eta haren espezialitatean zein diren egiaztatzen duten agiriak.
- 4) Lanean arituko diren langileen zerrenda, kontratatutako/azpikontratatutako enpresarenak.
- 5) Aurreko zenbakian aipatutako langileen TC-1 eta TC-2 dokumentuak. Lanean hasi berri izanagatik TC dokumentuetan ageri ez diren langileen kasuan, gizarte segurantzako kide izatearen egiaztatzea aurkeztuko da (alta eman izanarena) eta bakoitzaren NAREN fotokopia.
- 6) Lan honetan arituko diren langileen gaitasun medikoaren ziurtagiria.
- 7) Kontratatutako/azpikontratatutako enpresaren erantzukizun zibilaren poliza eta laneko arriskuen poliza.
- 8) Kontratatutako/azpikontratatutako enpresaren arriskuen ebaluazioa, Zestoako Udaleko instalazioetan arituko den lanpostuari dagokiona; eta haren langileek edota hark egindako lanek Zestoako Udalaren beraren langileei sor diezazkieketen arriskuen ebaluazioa.
- 9) Langileak lan-arriskuen prebentzioan trebatuta daudela egiaztatzen duten agiriak.
- 10) Enpresa baimendunaren egiaztatzea, baldin eta enpresak agiri horren beharra baldin badu industria segurtasuneko arau espezifikoetara lotutako instalazioak edo ekipoa instalatzeko, mantentzeko, berrikusteko edo ikuskatzeko lanak egiteko nahitaezkoa bada (berogailua, konpresoreak, hozkailuak, goi-tentsioa, behe-tentsioa, gasa, goratzeko ekipoa...).

Enpresa esleipenduneko langileek ezin izango dute jo, inola ere, laneko harremanik edo funtzionario harremanik dutela Zestoako Udalarekin.



37. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK

Kontratua suntsiaraziko da baldin eta agiri honetan adierazitako baldintzak eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 223. eta 299. artikuluetan ezarritakoak betetzen badira: Horrelakoetan, aipatu testu bategineko 225. eta 300. artikuluetan adierazitako ondorioak izango dira. Kontratazio-organoak hartuko du kontratua suntsiarazteko erabakia, ofizioz edo kontratistak hala eskatuta.

SPKLTBren 223. artikuluan adierazitakoez gain, kontratua suntsiarazteko kausa izango dira honako hauek ere:

- a) Kontratugileak ez betetzea kontratua gauzatzeagatik eskura izan dezakeen informazioa isilean gordetzeko betebeharra.
- b) Kontratuaren baldintza teknikoak behin eta berriz ez betetzea. Baldintza teknikoak behin eta berriz betetzen ez baldin badira Administrazioak kontratua suntsiarazi ahal izango du, zehazki, hitzemandako bitarteko pertsonal eta materialak ekartzen ez baditu edo erantzuteko denborari eta kontratuari lotutako emaitzak ematen ez badira. Kontratua suntsiarazteko baldintza hori betetzen dela joko da Administrazioak aurreko klausulan adierazitako ohartarazpenetatik hirugarrena gauzatzen duenean.
- c) Udalaren zuzendaritza- eta ikuskatze-ahalmenak eragozteak. Kontratistak bere betebeharrak ez betetzeagatik kontratua suntsiarazteko kausatzat joko da, hain zuzen ere, Administrazioari aitortutako zuzendaritza- eta ikuskatze-ahalmenak gauza ditzala behin eta berriz eragozteak edo horiek gauzatzen ez laguntzea, berdin berez edo kontratuko arduradunaren bitartez, eta alde zuzenetik idatziz ohartarazita, betiere.
- d) Administrazioarekin kontratatzeak baldintzak bat-batean galtzea.
- e) Kontratuaren xedeari lotutako funtsezko betebeharrak ez betetzea, SPKLTBren 223 f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Kontratuaren xedeari lotutako funtsezko betebehartzat joko da kontratistak bere eskaintzan bere gain hartu dituen hobekuntza edo konpromisoak; Horiek erabakigarriak izan badira eskaintza baliozterako eta kontratua esleitzeko orduan. Kontratua esleitzeko orduan hobekuntza bat edo konpromiso bat zela joko da baldin eta bete ez den hobekuntzari edo konpromisoari esleitutako puntuazioa kontratistaren eskaintzaren balioespenetik kenduz gero, haren eskaintza ez balitz izango balioespenik onena jasoko lukeen hura.



f) Esleipendunak ez betetzea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 99.2. artikuluan behin betiko bermea berriz jartzeari edo handitzeari buruz adierazitakoa, esleipendunari eska dakizkiokeen kalte-ordainak edo zigorrak berme horren bitartez gauzatzen diren kasuetarako.

Kontratua kontratistaren erruz suntsiarazten baldin bada behin betiko bermea konfiskatuko da, eta, horrez gain, Administrazioari eragindako kalte eta galerengatiko kalte-ordaina ordaindu beharko du, betiere, bermearen zenbatekoa gainditzen baldin badu.

Ez da kopururik ordainduko edo likidatuko, P4 prestazioan egindako inbertsioengatik.

38. LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA

Esleipendunak hirugarren bati laga diezazkioke kontratu honen ondoriozko eskubide eta betebeharrak, betiere SPKLTBren 226. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baldin badira.

Kontratuaren esleipendunak kontratuaren zati bat gauzatzea hitzar dezake hirugarrenekin, betiere SPKLTBren 227. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baldin badira. Horrelakoetan, kontratuaren esleipendunak bete egin beharko ditu SPKLTBren 228. artikuluan ezarritako baldintzak eta betebeharrak. Edonola ere, kontratistak kontratua gauzatzeko ardura osoa bere gain hartuko du Administrazioaren aurrean.

Kontratistak Administrazioari jakinarazi behar dio azpikontratazioa egiteko asmoa duela, bai eta kontratuaren zer zati azpikontratatu dituen eta azpikontratatistaren identitatea zein den ere. Horrez gain, justifikatu beharko du azpikontratista kontratua gauzatzeko gai dela, elementu tekniko, giza-elementu eta eskarmentu aski izateagatik.

39. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu hau administratiboa da, eta hura prestatzeko, esleitzeko, iraungitzeko eta haren ondorioak ezartzeko orduan, agiri honetan xedatutakoari jarraituko zaio eta, agiri honetan aurreikusi ez den guztian, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua aplikatuko da, bai eta Administrazio Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Arautegi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua ere, SPKLTBren aurkakoa ez den orotan. Ordezko gisa, zuzenbide



administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horrelakorik ez balego, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazio auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna kontratu honetako aldean artean sortzen diren auziak ebazteko, halaxe xedatu baita Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 21.1. artikuluan.

SPKLTBren 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratua erregulazio bateratuari lotu zaionez, kontratazio-arloko errekurtsio berezia jarri ahal izango da egintza hauen kontra: lizitazio-iragarkiak, pleguak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-agiriak, esleipen-prozeduran onartutako izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek, zuzenean edo zeharka, esleipenari buruz erabakitzen badute, prozedurak aurrera jarraitzea eragozten badute, edo defentsa-gabezia edo eskubide eta interes bidezkoetan kalte konponezina sortzen badute. Prozedurak aurrera jarraitzea eragozten duten izapide-egintzatzat joko dira kontratazio-mahaiaren egintzak, lizitatuak baztertu direnean. Hala ere, ezin izango da kontratazio-arloko errekurtsio berezia jarri pleguetan aurreikusi gabeko kontratu-aldaketak egiteko kontratazio-organismoek emandako egintzen aurka, baldin eta, aldaketa horiek, 105.etik 107.era bitarteko artikuluen arabera, kontratuak esleitu ondoren egin beharrekoak badira, egintzon bitartez suntsiarazpena eta lizitazio berria egitea erabaki edo ez.

Kontratazio-arloko errekurtsio berezia aukerakoa izango da. Errekurtsioa jartzeko idazkia kontratazio-organismoaren erregistroan edo errekurtsioa ebazteko eskumena duen organismoaren erregistroan aurkeztu beharko da, hamabost egun balioduneko epean, SPKLTBren 44. artikuluan xedatutakoaren arabera zenbatuta, kontratazio-organismoari idatziz jakinarazi ondoren. Ematen den ebazpena zuzenean betearazlea izango da, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa baino ezin izango da jarri.

Haien aurka errekurtsio berezia jar daitezkeen kontratazio-organismoaren egintzak eta SPKLTBren 40. artikuluan jaso ez diren kontratuetan ematen direnak betearazleak izango dira berehala, eta administrazio-bidea bukatuko dute. Ebazpen horien aurka berraztertzeko errekurtsioa jarri ahal izango da, hautara, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; edo errekurtsio horiek zuzenean aurkara daitezke Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Zestoan, 2016ko otsailaren 22an.

I. ERANSKINA

URTEKO PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... jaunak/andreak,
helbidea (e)(a)n eta
NAN..... dituenak, bere izenean edo
enpresaren ordezkari gisa, zeinak helbidea.....
..... (e)(a)n, Telefonoa..... eta
IFK dituen

ADIERAZTEN DUT:

I.- Kontuan izanik ezagutzen ditudala kontratua arautuko duten administrazio baldintzen agiria, baldintza teknikoaren agiria eta gainerako dokumentazioa, eta horiek guztiak espresuki onartzen ditudala, salbuespenik gabe, hitz ematen dut kontratua gauzatuko dudala haren eskaintza osatzen duten agiri eta baldintzetan ezarritakoa betez, eta urteko prezio hauen arabera:

ZERBITZUA	€/urte (BEZ kanpo)	BEZa
P1: Energia-kudeaketa, Elektrizitate-hornidura eta inbertsioak		
P2: Mantentze-lanak (P2)		
P3: Berme osoa (P3)		
UEE: P1 + P2 + P3		

(Tokia, data eta proposamena egiten duenaren sinadura)
